

MARGOLAN BAT NIRE LAGUNA IZAN DAITEKE?

HAMAR URTE ARTEAREN BITARTEZ IRAKASTEN MUNen

OTS 11
ABU 16
2026

GAZTELUKO PLAZAKO POSTALAREN ILUSTRAZIOA, KANDINSKYK 1929AN ESKURATUA, IKASLE BATEK EGINA

Hitzaurrea

Tradizionalki, kontserbatzaileak, museoetako goi-mailako teknikariak, komisarioak edo kuradoreak izan dira museo eta arte-museoetako erakusketen plangintza eta diseinua egin dutenak. Beraz, ez da batere ohikoa izan museoetako hezitzaileak eginkizun hori egitera gonbidatuak izatea.

Nafarroako Unibertsitateko Museoan (aurrerantzean, MUN), aukera horren aldeko apustu sendoa egin zen. Horrela, Museoaren Zuzendaritza Artistikoak, Hezkuntza Arloari proposamen bat egin zion, momenturaino burutu ez den zerbait egitea: erakusketa bat gauzatzea. Gogo eta ilusio handiz jaso genuen proposamena, erronka berri-tzaile baten aurrean geundelako. Proiektu honek, Museoa ireki zenetik egiten ari garen hezkuntza-lanari balioa emateko aukera ematen digu. Horregatik, eskerrak eman nahi ditugu eskaini zaigun aukerarengatik eta gudan jarri den konfidantzagatik. Espero dugu erakusketa hau ikusten dutenek, harekin gozatu eta ikasi dezatela, eta agian, museoan esparruan, lan eredu berri baterako aintizadari bezala ezartzea.

Ongietorria

Museoa bisitatu zuen neska batek egin zigun galdera betetik sortzen da erakusketa hau eta haren izenburua: «Margolan bat nire laguna izan daiteke?». Heldu baten-tzat galdera hau arraroa suerta daiteke; guretzat, ordea, hausnarketarako eta sakontasunerako gonbidapena da. Galdera honen bidez, gauzei arreta handiagoz eta nabarduraz begiratzeko kontzientzia piztu nahi dugu, haurtzaroan, mundua ikusteko dugun modua berreskuratzuz. Eraikinaren sarreratik areto honetaraino ekarri zaituzten esaldiek aipatzen duten begirada sakon hori sustatzea dugu helburu. Margolan bat nire laguna izan daiteke? horregatik ibilbide honen asiartatik galdetzen dizugu.

Galderak sortzea da artearen eginkizunetako bat. Haurtzarotik, arteak botere hori dauka. Baliteke arteak errealitatearen eta importa zaigun guztiarren buruzko ezagutza konplexuago eta sakonago bat sortzera laguntzeak. Artearen bidez, pentsatzera, sentitzera, ezagutzera eta galdera sakonak egitera ikas dezakegu.



LIBURUXKA HONEN
GAZTELERAZKO ETA
INGELEZO BERTSIOAK HEMEN
DESKARGA DITZAKEZU



IKASLE TALDE BAT, ROTHKOREN *UNTITLED* (1969) MARGOLANA IKUSTEN, "ROTHKO.50" PROIEKTUAREN BARNE (M.CASTELLS)



"ROTHKO.50" PROIEKTUAREN ITXIERA MUNEKO ANTOZOKIAN (M.CASTELLS)

Askotan, ikaskuntza horietan, bisitariak, museo horietako hezkuntza-departamentuan lan egiten duten pertsonen laguntza daukate, gure Museoan gertatzen den moduan. Horregatik, orain MUNeko Hazkuntza Arloak egindako lanaren ibilbidea ikustera gonbidatzen zaituztegu. Museo batentan, hezkuntza egiteko modu asko daude, beraz, erakusketa honetan, MUNeko hezkuntza prozesua ikusgai gelditzen da.

Museo bezala, testuinguru atsegin eta aske bat izan nahi dugu, esperientzia horiek gure garapen pertsonalean lagun dezaten eta inguruan dugun mundua hobeto ulertzen lagundu gaitzaten. Museo inklusibo baten alde egiten dugu lan, artearen bitartez esperientziak eta ikaskuntza sortzeko.

Erakusketa honetan ikusiko duzun bezala, gure museoaren nortasuna, hezkuntza-programetan islatu da: Arloen arteko hezkuntza; "pentsatzen ikasteko" gaitasunaren garapena; sormena eta pentsamendu dibergentea sustatzea; *visual thinking*, *object-based learning*, *learning by doing* eta lankidetzak bezalako metodologia didaktikoak; "ikusten dut-pentsatzen dut-galdetzen dut" bezalako pentsamendu-errutinak; hezkuntza emozional eta afektiboa; eta bakea, aniztasuna edo berdintasuna bezalako balioetan oinarritutako hezkuntza.

Erakusketa hau hainbat modulu tematikoetan egituratuta dago; gure lan-jarduera inspiratu duten MUN Bil-dumako piezekin batera, gure ohiko lan-metodologietako emaitza diren sokuntza kolaboratiboak aurkituko dituzu. Horrez gain, erakusketa honetan bertan sortuko ditugun batzuetan parte hartzea animatzen zaitugu, zure ekarpe-nei esker. Parte-hartzea oso garrantzitsua denez guretzat, sormen-txoko batzuk aurkituko dituzu, hainbat material-ekin, bertan zu ere sorkuntza bat egiteko asmoarekin.

"Begiradaren hezkuntza" modula

Izan ere, hona iritsi aurretik, erakusketa honen lehen modula bisitatu duzu jada. Badakizu zertaz ari garen? Modulu hau Museoaren sarreratik aurkitu dituzun begiradaren hezkuntzari buruzko esaldiek osatzen dute. Lehenik eta behin, Antoni Tàpiesek egiten digun gonbidapenarekin «Begira, begira sakon». Bigarren esaldia erakusketa-

ren sarreran ikusi duzu, Mark Rothko artistari egotzitako proposamen bat da; hark begirada konbentzionalari uko egin eta artistaren begirada bereganatzera animatzen gaitu.

Hemen, Margolan bat nire laguna izan daiteke? proposamenean murgiltzeko hautatu diren zortzi esaldiak bildu dira:

Begira, begira sakon
ANTONI TÀPIES

Haurren mundua berria eta ederra da, harridura eta emozioz bete. Pena da gutako gehienentzat begirada hori (...) galdu edo lausotu egiten dela
RACHEL CARSON

Badago zabaldu beharra dugun fenomeno bat, eta hori, besterik gabe, IKUSTEN irakastea da
CÉSAR MANRIQUE

Nola askatu gaitezke pertzepzio-teknika konbentzionaletatik, artistaren begiekin ikusi ahal izateko?
MARK ROTHKO

Kamera [argazki-kamera] bat da kamerarik gabe ikusten irakasten digun tresna
DOROTHEA LANGE

Ikusleak osatzen du artistak hasitakoa
MARCEL DUCHAMP

Sormena badago, baina lanean aurkitu behar zaitu
PABLO PICASSO

Begiradarekin entzun daiteke
PABLO PALAZUELO

Begirada egoki bat lortzea ez da erraza, horrek entrenamendu eta arreta handia eskatzen digulako. Hala ere, hau landuz gero, munduak eskaintzen dizkigun sekretu eta misterioetan barneratzeko aukera emango digu.

"Rothko experience" modula

Mark Rothko (1903-1970) estatubatuarra, adierazpen abstraktuaren ordezkari nagusietako bat izan da. Rothko-



IKASLE TALDE BAT GUERNICA ARTELAN KOLABORATIBARI BEGIRA (M.CASTELLS)

rentzat, begirada sakon eta introspektibo bat funtsezko elementua izan zen bere lanean, eta sortu zuen esperientzia estetikoan. 1969ko *Untitled* lana MUNeko Bildumaren parte da. 2019an, obra horren sorreraren 50. urteurrena bete zenean, *Rothko.50 Proiektua* gauzatu zen, egile honen lanera hurbiltzeko helburuarekin.

Bere sorkuntzak, gehienetan, ezin dira begirada zehatz batekin behatu; izan ere, pintura “kontenplatio” gisa pentsatuak daudenez, denbora eta arreta handia behar da hauek behatzeko. Horrek, ikuslearengan efektu psikologikoak sortzen ditu, zehazki “*Rothko experience*” deritzon esperientzia estetiko.

Fundación Caja Navarraren babesarekin gauzatutako proiektu kolaboratibo honek hezkuntza-maila guztietara zuzendu zen: lehen hezkuntzatik batxilergora, lanbide-heziketa eta hezkuntza berezia barne. 2019ko irailetik abendura bitartean, 28 taldetako 1.512 ikasleek parte hartu zuten, eta proiektu horietako helburu nagusienak hauek izan dira: sakon begiratzen irakastea, pentsamendu kritikoa garatzea eta hizkuntza sortzaile baten bidez ikastea. Horretarako, Rothkoren lana hainbat minutuz isilean begiratzera gonbidatu genituen ikasleak; hasieran proposamen horrek haien jakin-mina pizten zuen, izan ere, bizi garen mundu azeleratu honetan ez gaudelako ohitutak irudi edo objektu bakar bati denbora luze eta sakonez begiratzera. Kontenplazioan zehar aurkikuntza pertzeptibo, emozional eta kognitiboak garatu ziren eta ondoren, sentitutakoaren eta bizitakoaren inguruan, ekarizketa esanguratsu bat sortu zen.

Hezkuntza arloan, Rothkoren margolanak aukera ugari eskaintzen ditu, obraren balioari edo merezimenduari lotutako aurreiritziak azaleratzea erraza baita, eta ideia honen inguru hausnartzea izan zen gure helburu; proiektu honen bidez, aurreritzi horiei hurre egitea eta, Rothkok egindako apustu sortzaile ausartaren balioa nabarmentzea.

Rothkoren obraren kontenplazioa egin ondoren, Museoaren Tailer-gunean bi jarduera egin ziren. Lehenik, ikasleek hainbat proposamen sortu zituzten Rothkoren estiloari jarraituz. Bigarrenik, ikasle bakoitzak bizitako esperientziari buruzko sormen-lan bat egin zuen, postal-formatuko mini-Rothkoak sortuz. Mini Rothko horiek dira orain ikusten ari zaren meta-Rothko hau osatu duten zatiak. Horrez gain, orain, zuk ere zure Rothko bat sortzera gonbidatzen zaituztegu, jarduera honetan parte hartzen duzuen guztien ekarpenekin, bigarren meta-Rothko kolektibo bat osatzeko.

Rothko honen inguru sortutako hariketak, argitalpen ugari egiteko balio izan dute¹.

“Guernica-ren 80. urteurrena” modulua

Zenbat artista izango dira mundu mailan Pablo Picasso bezain ospetsuak? Eta zenbat arte-lan izango dira Guerni-

¹ Urpí, C., Reparaz, C., & Echarri, F. (2022). Measuring the Rothko experience in school visitors to modern art museums. *The Journal of Educational Research*, 115(2), 173–186. <https://doi.org/10.1080/00220671.2022.2074950>

ca bezain famatuak? Picassoren lan hau eta gure Museoan dagoen Jorge Oteizaren beste bat aitzaki hartuz, sortu zen modulu honi izena ematen dion proiektu hau:

1937ean, eta beraz, Espainiako gerra zibilaren garaian Guernica margolana egin zen. beraz, 2017ean, obra honen 80 urteurrena bete zen. Lan hau mundu osoan zehar bakearen ikono gisa hartu izan da beti, jarrera politiko edo ideologiaz harago, pertsonen bihotzera heltzen delako. Urteurren horren harira, MUN-ek proiektu kolaboratibo bat diseinatu zuen ikasleekin bakearen eta bizikidetzaren inguruko balioak lantzeko.

Proiektua Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta hezkuntza bereziko ikasleei zuzendu zen. Lehenik, museoko aretoak bisitatu ziren, Guernica-rekin lotura estua duten lanak ezagutzeko. Zehazki, Jorge Oteizak 1957an egindako *Estela para un pueblo pacífico que era Guernica*.

“Gernika no era de esculturas aunque desde 1957 tenía de mi parte estela muy simple como signo plástico de su entera recuperación, una piedra oscura, herida, abierta, mirando al cielo no el Árbol, el cielo de donde bajó la muerte y abierta como una mano que puede perdonar, libro abierto también para siempre a la memoria”².

Bigarrenik, proiektuan parte hartu zuten ikasle-txe guztiekin batera, *Guernica*-ren benetako tamaina duen (7,77 x 3,49 metro) erreprodukzio bat egin zen. Horretarako 532 laukiz osatutako mural bat prestatu zen, Picasso-ren lana osorik erreproduzitzeko.

Hirugarrenik, ikasle guztiek bakea eta bizikidetzaren inguruko bere ideiak adierazi zituzten eta haiekin mural berri bat sortu zen.

Amaitzeko, “Bakearen Bidea” sortu zen. Bakea guztion artean sortu behar den gauza bat dela irudikatzeko, jarduera honetan parte hartu zutenek, bere oinen aztar-nak MUNeko antzokiaren oholtzan margotu zituzten. Jarduera honetan, 24 ikastetxetik etorritako 946 ikasle hartu zuten parte eta esperientzia hau Journal of Museum Education-en argitaratu zen³. Beraz, esan dezakegu, proiektu kolaboratibo hau oso apustu garrantzitsua izan zela eta honen ondorioz, urtero, MUNen egiten diren hezkuntza proiektuetan, bakearen inguruan mintzatzen duen proiektu bat egiten da beti. Horri esker, MUN eta Nafarroako Gobernuak Bakea, Bizikidetzak eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza Nagusiaren arteko lankidetzak sendotu egin da.

Hori dela eta, 2025-2026 ikasturtean ere, proiektu kolaboratibo bat abian jarri dugu, oraingoan “Dibertsitatea eta bizikidetzak. Bullyingaren prebentzioa” izenburupean. Proiektu hau, o solairuko laugarren gelan ikus dezakezun, 1978ean Pablo Palazuelk egindako “El número y las aguas I” lana aitzaki hartuz sortua da.



ESTELA PARA UN PUEBLO PACÍFICO QUE ERA GUERNICA (OTEIZA, 1957).
“GERNICAREN 80. URTEURRENAREN” PROIEKTUAREN ARTELAN NAGUSIENA

“Kandinsky gazteluko plazan” modulua

Ze lotura egon daiteke jatorri errusiarreko artista zen Wassily Kandinskyrekin eta iruñeko gaztelu plazarekin? Bi errealtate hauek oso urrun daudela ematen duen harren, azkenean lotura handia izan zuten.

1929an, Kandinskyk eta Bauhaus-eko beste artista batzuk, Frantziako hegoaldera eta Espainiako iparraldera joan ziren, iruñen gau bat pasaz. Nafarroako hiriburuan zeudela, Kandinskyk Iruñako Gaztelu Plaza islatzen zuen postal bat erosi zuen⁴.

Honek, 2018an, proiektu kolaboratibo berri bat sortzeko ideia eman zigun. Helburua Kandinskyren garrantzia nabarmentzea izan zen, historiako lehen artista abstraktutzat hartzen baita. MUNeko Bilduman dagoen Kandinskyren *Sin título* (1941) margolanak, proiektua kokatzeko aukera eman zigun, artista baten lan erreala erabiliz eta egoerazko ikaskuntza bat sustatzeko.

Abstrakzioak hainbat eduki lantzeko aukera ematen du. Autoezagutzari eta kanpoko munduarekin, naturala, soziala, zein kulturalarekin daukagun harremanean eragin handia du.

Helburu horrekin eta arte garaikidearen baliabideek eskaintzen duten aukerarekin, MUNeko Hezkuntza Arloak, 2018an instrukzio hezitzaile inklusibo-kolaboratibo bat diseinatu zuen, eta proiektu berri bat jarri zuen martxan. Honen helburua, ikasleek artearen bitartez errealtatearen ezagutzara hurbiltzea zen. Proiektuak garapen pertsonalari ere egin zion erreferentzia: ikasleen jakin-mina sustatzea, autonomia eta kritizismoa lantzea, eta nortasun pertsonala indartzea.

² Insausti, G. (2006). Poesía edición bilingüe. Edición crítica de la obra de Jorge Oteiza. Fundación Museo Jorge Oteiza, p. 687.

³ Echarrri, F. (2019). 80th Anniversary of Picasso's Guernica: A Date with Peace at the University of Navarra Museum. *Journal of Museum Education*, 44(1), 96-107.

<https://doi.org/10.1080/10598650.2018.1547079>

⁴ Martínez de Guereñu, L. (2016). Bauhäusler on the Franco-Spanish Border. *Architectural Histories*, 4(1), np-np. <https://doi.org/10.5334/ah.191>



ALUMNADO REALIZANDO UNO DE LOS MURALES COLABORATIVOS DEL PROYECTO "KANDINSKY EN LA PLAZA DEL CASTILLO". (M. CASTELLS)

Hau lantzeko ikastetxeen arteko proiektu kolaboratibo bat sortu zen, haien artean bi mural kolaboratibo sortzeko asmoarekin. Lehenengo muralean, ikasle bakoitzak, Iruñeko gaztelu plazako postalaren interpretazio abstraktu bat egin zuten. Bigarrenean, Kandinskyren *Círculos dentro de un círculo* (1923) lana erreproduzitu behar zuten. Muralak 3,70 x 3,70 metroko tamaina zuen eta ikastetxe ezberdinetako ikasleen artean, laukizuzenetan banatu zen.

Proiektu hau, 2018ko irailaren 10ean Iruñeko Gaztelu Plazako Kasino Berrian inauguratu zen, eta proiektu honetan parte hartu zuten ikasle guztiakin topeketa bat antolatu zen, guztien artean egindako lana ikus zezaten. Guztira 2.140 ikasle hartu zuten parte, 52 taldetan banatuak. Zehazki, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik (10 urte) Bigarren Batxilergora (18 urte), Lanbide Heziketako eta hezkuntza bereziko ikasleak parte hartuz ere. Esperimentzia honen emaitzak liburu baten atal batean argitaratu ziren⁵.

⁵ Echarrí, F. & Torres, T. (2024). Hacia una abstracción inclusiva: el Proyecto Kandinsky y los círculos personales. En Cuesta Sánchez, A. M., & Pazos-López, Á. (Eds.). *Digital humanities for the XXI Century Museum: best Practices, Networks and Accessibility*, (pp.503-51). Bolaine.



MUJER DE ÁVILA (ORTIZ ECHAGÜE, D.G) OBRA ORIGINALA, IKASLEEK EGINDAKO LANAREN ONDOAN. (M.CASTELLS)

"QUIDARTE eta Gure nagusiei omenaldia" modulua

Zer esan nahi du norberari zaintzeak? Eta beste bati zaintzeak? Non jasotzen eta ematen ditugu zaintzak? Zer suposatzen du zaintza horrek eta zein nolako eragin dauka gure ongizate fisiko, mental, sozial eta espiritualean? Covid-19aren pandemiak honen inguruan daukagun ikuspegia aldatu egin zuen?

Azken urteotan, museoek pertsonen ongizatea eta zaintza sustatzen duten ingurune gisa hartu dira, horregatik Covid-19aren ondoren, beste museotatik gertatu zen bezala, MUN-en ere, nola laguntzen eta zaintzen ahal genuenaren inguru hausnartu zen. Horren eraginez, eskaintza artisitko berri bat sortu behar genuela jakin genuen, zehazki, kontzertuak, dantza eta antzerki ikuskizunak, tailerrak eta hitzaldiak, arte bisualak eta ikus-entzunezkoak modu interdisziplinarioan erabiliz. Horrela, Artearen eta Osasunaren binomioa museoan gauzatu daitekeela ikusgai gelditu zen: arteak garapen pertsonala eta kohesio soziala sustatzen dituelako, eta, ondorioz, ongizate pertsonal eta komunitarioa sortzen du.

QUIDARTEren elementu nagusietako bat, *La vida vivida y por vivir* antzezlanaren izan zen. MUN-ek produzitua, gehienbat aktore heldu ez-profesionalekin.



COSTA RICA [CECILIA PAREDES, 2007] OBRA HONEN INGURU, "EMAKUMEAK ARTEAN" HAUSNARTU EGIN ZEN. [M.CASTELLS]

QUIDARTE programan 1.472 pertsona parte hartu zuten eta 44.789 birtualki, hau da, guztira 46.261 pertsona proiektu honen partaide izan ziren. Programak Iruñeko Udalaren, Fundación Caja Navarra-ren eta Fundación "la Caixa"-ren laguntza izan zuen⁶.

Pandemiaren ondorioz, gure nagusiak kaltetuenak izan ziren. Etxean, egoitzetan edo ospitaleetan bizi izan duten egoera oso deserosoa izan baitzen. Testuinguru horretan, eta QUIDARTE programaren ildotik, sortu zen "Gure nagusiei omenaldia" proiektu kolaboratiboa, 2021-2022 ikasturtean eta harreman intergenerazionalak indartzea eta sustatzea zuen helburu. Proiektu honen bidez, ikasleek, pertsona nagusien inguruan zuten pertzepzioa

ezagutu genuen, haiekin, pertsonetikiko errespetua sustatu nahiaz. Prozesu honen ostean lorutako emaitzak, argi adierazi ziguten gazteak haien nagusiekiko, errespetu handi eta positibo bat dutela.

Proiektu hau egiteko erreferentzia, MUNeko Bilduman dagoen José Ortiz Echagüe-ren *Mujer de Ávila* (s.f.) izan zen. Bertan, emakume nagusi bat ageri da, eta beraz, jarduera zehatz bat sortzeko aitzaki perfektua. Proiektuan hiru jarduera egin ziren, lehenengoa, *Nire esperientzia nagusiekin* deitzen zen eta bertan, ikasle bakoitzak, bere inguruko nagusiekin izandako esperientzia positiboak irudikatzea zen helburu. Hori eginda, aipatutako nagusi haiei eskutitz bat bidali zitzaizen, *Eskerrak emateko gutuna* dehitua. Azkenik, *Mujer de Ávila*-ren lanaren erreproduktzio kolaboratibo bat egin zen, mural handi bat osatuz.

Proiektua Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik Bigarren Batxilergora izan zen zuzendua, baita Lanbide

⁶ Echarri, F. (2022). El programa QUIDARTE del Museo Universidad de Navarra: el arte al servicio del bienestar y el cuidado en el contexto de la pandemia Covid-19. *Arteterapia. Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 17, 71-84. <https://doi.org/10.5209/arte.79927>



IKASLE TALDE BAT "EMAKUMEAK ARTEAN" PROIEKTUAN PARTE HARTZEN. (M. CASTELLS)

Heziketara eta hezkuntza berezira ere. Guztira 739 ikasleek parte hartu zuten, 23 talde desberdinetan banatuak.

Orain ikusten hari zaren erakusketa honetan, proiektu horren argazki bat ikus dezakezu soilik, egindako proiektu osoa, beste bat egiteko erabili baitzen. Hori horrela izanda ere, proiektu honi argazkiak ateratzeko, beste ideia bat piztu zigun: argazki guzti hauek, Nafarroako nagusien zentroetara eramaten ahal genituen, bertan zeuden pertsonen artea ikusteko baliabidea izateko.

2025ean egindako proiektu honetan, 27 nagusien zentro parte hartu zuten, guztira 713 pertsona.

"Emakumeak artean" modulua

Iraganeko eta gaur egungo artista handiei buruz pentsatzean, zein izen datozkigu lehenik burura? Horietatik zenbat dira emakumeen izenak? Ze paper izan dute emakumeek artearen munduan? Eta beste arloetan? Artean ere emakumezkoen inguruko estereotipoak mantendu dira?

MUNeko jarduera hezitzailetan bisitariei galdera horiek egin dizkiegu genero-ikuspegia sustatuz eta emakumearen rola artean eta bestelako arloetan nabarmentzeko eta aitortzeko gune reflexiboa sortuz.

"Emakumeak artean programan"⁷, artearen historiako

lan ikonikoak aztertu dira. Irudi adierazgarri bat, Guerri-lla Girls kolektiboaren kartela da, artearen desberdintasunak salatzen dituelako. Kartel horrek datu harrigarriak ematen dizkigu: "Emakumeek biluzik egon behar al dute New Yorkeko Metropolitan Museum-era sartzeko? Arte modernoaren ataletan, artista guztien %4 baino gutxiago dira emakumeak, baina biluzien %76a, emakumezkoak dira".

Kandinsky-ren moduluan esan dugun bezala, abstrakzioaren sortzaileetako bat da, hala ere, ikerketa berriek baieztatzen dute Hilma af Klimt (1862-1944) margo-lari suediarrek, Kandinsky baino lehenago arte abstraktua egiten zuela jada.

Gaur egun, arte garaikideko museotan emakumezkoen lanen presentzia gero eta handiagoa da. Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko. MUNen, 1.000 artista inguru daude bilduman, eta horietatik gutxi gorabehera 30 emakumezkoak dira.

Modulu honetan MUNeko bildumako hiru emakume artisten obrak ikus ditzakezu: Jane Clifford, Lynne Cohen eta Cecilia Paredes. Hauek eta beste artista batzuk ikasle-

honen emaitzak hemen ageri ziren: Echarri, F. & Barrio, T. (2022). *¿Por qué no nos mira esa mujer? Un proyecto colaborativo-inclusivo para fomentar la igualdad a través de la creatividad en el Museo Universidad de Navarra (167-179)*. En Urpí, C. (ed.), *Creatividad y bienestar en contextos educativos y sociales*. Narcea.

⁷ Programa honen bertsio bat, *¿Por qué no nos mira esa mujer?* izan zen, eta



"PIRAMIDE KULTURAL ANITZA" PROIEKTUAREN BARNE EGINDAKO MURAL KOLABORATIBOA. (M. CASTELLS)

entzako erreferentzia izan dira, eta hainbat proiektu kolaboratibo egin dira Museoan ikasturte ezberdinetan.

Proiektu kolaboratibo huetako batean, Cecilia Paredes-en *Costa Rica* (2007) lana tamaina handian erreproduzitu zen eta mural horren zati batzuk, erakusketa honetan ezarri dira, margolan originalaren azpian, ispilu apurtu bat izango balitz bezala, historia distorsionatu edota ezkutu eta isildu bat islatuz. Honen bitartez, emakumeen papararen inguruko hausnarketa egitea dugu helburu, haiei merezi duten lekua eskaintzeko eta artean ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Cecilia Paredes-en lanaz gain, modulu honetan Lynne Cohen-en *"Untitled. Red chairs"* (2009), ikus daiteke. Honen Nafarroako Unibertsitateko Klinikaren itzarote-gela irudikatzen du. Azkenik, Jane Clifford-en lana dugu. Clifford, XIX. mendeko argazkilaria izan zen, hala ere, bere lana beti, bere senarraren itzalpean gelditu zen beti; Charles Clifford. Biek Madrilan argazkiestudio arrakastatsu bat sortu zuten, eta bertatik, gaur egun Prado Museoan ikusgai dagoen *"Tesoro del Delfín"* izeneko bilduma sortu zen. Aretok honetan ikus dezakezun lana, bildu horren abarri zegoen dragoi-formako kopa baten argazkia da, eta gaur egun, baieztatu dezakegu, lan hau Charles Clif-

ford-en izenpean egon bazen ere, Janek egindako argazki bat dela.

Azkenik, erakusketa honetan ageri den beste lana, elkarlanean egindako proiektu batetik sortzen da; ikasleek MUN-en dauden emakumezkoek egindako lanak behatu zituzten eta horren inguruan, lan horien interpretazio bat egin zen, horrekin, hemen ikusgai dauden bi mural kolaboratibo berri sortuz.

"Piramide kultural anitza" modulua

Ez du axola non zauden. Edozein lekutan egonda, begirada kontziente batek erakutsiko dizu aniztasuna edonon dagoela: naturan, paisaietan, landareetan edo animalietan; koloreetan eta haien tonaltate infinituetan; munduko kultura desberdinetan; arte-lanetan edota pertsonetan.

MUNen giza dibertsitatearen garrantzia eta aberastasuna azpimarratzen duten hainbat proiektu kolaboratibo garatu dira. MUN-en dibertsitatea balio bezala landu nahi dugu, eta pertsona guztien inklusioa sustatu. Hala ere, lan hori ez da beti erraza; ezezaguna beldur kontziente edo inkontzienteak sor ditzake. Gizakiok, naturalki, besteengan estereotipoak proiektatzen ditugu, nahiz eta barruan dakigun hori ikuspegi osatu gabe eta batzuetan injustua dela pertsona edo talde haien buruz.

MUN bildumako artisten lanaren bitartez ideia hauek lantzen ditugu eta bereziki Pierre Gonnord argazkilaria frantziarraren lanen bidez. Berak, pertsonak irudikatzean, hurbilpen pertsonal sakon baten bidez egiten zuen horrek, bere argazkietan pertsonak duintasun, errespetu eta estimu handiz agertzea suposatzen zuen.

Modulu honetan ikusiko duzun murala piramide formakoa da, eta 2023-2024 ikasturtean egindako *"Piramide kultural anitza"* proiektu kolaboratiboaren emaitza da. Proiektu hau, ikasturte horretan, Museoan ikusgai egondako piramideak irudikatzen zituzten grabatu batzuetan oinarrituta dago.

Proiektu kolaboratibo honen barruan, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko eta Hezkuntza Bereziko ikasleei gonbidatu zitzaizkien piramide horiek berrinterpretatzeko, fitxa magnetiko txikiak eginez eta errotulagailuak erabiliz. Mural honetan 757 ikasleek parte hartu zuten, 17 ikastetxetakoak. Jarduera hauetan, Nafarroako Gobernuako Migratzaile Politiketako Zuzendaritza Nagusiaren eta haren marka *"Navarra de Colores"*-ren laguntza izan genuen.

MUN-ek museo inklusibo bat izatea du helburu horregatik, 2021ean Hezkuntza Arloak SOCIARTE proiektua abiarazi zuen, gaur egun 35 erakunde sozial osatzen duten sare bat sortuz. MUNek ekintza ugari garatzen ditu haren parte-hartzaileentzat, inklusioa sustatuz, eta beren beharrak eta itxaropenak asetzea helburu izanik.

2024-2025 ikasturtean, 1.808 pertsona parte hartu zuten 113 jardueretan. Proiektu honek hasieratik Fundación *"la Caixa"*-ren laguntza izan du, eta hortaz gain, SOCIARTEren babesik gabe, ez litzateke ere posible izan.

"Unibertsitate-museo bat" modulua

Zer egiten du Erizaintzako ikasle batek, Manolo Milla-

res-en *De este paraíso* (1969) lanaren aurrean, bere ikasgelako gainerakoekin batera MUNen? Atal honetan galdera honi erantzuten saiatuko gara, MUNeko unibertsitate-museoaren izaera azpimarratuz.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da museoa “gizartearen zerbitzura” dagoen erakunde bat dela azpimarratzea. Hori da Museoen Nazioarteko Kontseiluaren iritzia. (Consejo Internacional de Museos, ICOM) . Horrek konpromesu bat eskatzen digu “gizarte” horrekin, nahiz eta gizarte hori pertsona konkretuek osatua dagoen. Erakusketa honetan ikusten diren muralak ikasle-taldeekin egindako lan intentsiboaren emaitza dira, gehienak Iruñekoak edo ingurukoak, beren hezkuntza formalaren lehen faseetan.

Bigarrenik, MUN unibertsitate-museo bat da ere, eta hori bere identitatearen ezaugarri nagusietako bat da. Pertsonak beren ikasketetan laguntzen jarraitzen du, eta hori bereziki garrantzitsua da komunitate hurbilarekin: ikasleak, irakasleak eta Nafarroako Unibertsitateko beste profesionalekin. Unibertsitate honek 17 fakultate eta eskola ditu bere egoitzetan, eta 14.000 ikasle inguru mundu osotik. MUNen saiatzen gara testuinguru hezitzaile baliagarria izaten irakasle eta ikerlariarentzat, eta prestakuntza tekniko eta batez ere humanista eskaintzen ikasleentzat.

Azken hamabi urteetan, fakultate-talde askok parte hartu dute gurekin. Nabarmendu nahi ditugu Hezkuntza eta Psikologia, Medikuntza, Erizaintza eta Arkitektura Goi Eskola Teknikoa fakultateekin egindako lankidetzak. Modulu honetan pertsona bakoitzarekin modu indibidualizatuan nola lan egiten dugun erakusten dugu.

Erizaintza Fakultateko 4. mailako ikasleak izan ziren, Paliatiboen Arretari buruzko ikasgaiaren barruan, eta 132 ikasle etorri ziren MUNera bi taldeetan, bi saioetan banatuta, urrian eta azaroan.

Lehenengo saioan, arreta, introspektzioa eta begirada sakon eta kontzientea lantzeko ariketak egin ziren. Ondoren, piramidearen barruan, ikasleek modu sormenez indargune, ahulgune eta beldur pertsonalak islatzen ziztuzten, paliatiboen arreta emateko lotuta.

Bigarren saioan, arreta eta behaketa gehiago lantzen jarraitu zen, bi arte-lan kontzeptualen bidez, sufrimendua, enpatia eta autokontrola bezalako kontuekin lotuta. Ondoren, tailerretan, ikasle bakoitzak piramidearen kanpoaldean lan egin zuen, ahulguneak indargune bihurtzeko eta beldurrak gainditzeko moduak esploratuz. Saio bakoitzaren amaieran partekatze orokorra egin zen.

Medikuntza Fakultatearekin ere enpatia eta konpasio tailerrak garatzen dira, hainbat ikasgaitan, eta hauek Erizaintzakoekin lotura handia dute. Izan ere, tailer haue-
tan egindako piramide batzuk Medikuntza Fakultateko

ikasleek eginikoekin elkartu dira. Tailer horiek ohikoak bihurtu dira, fakultate horiek irakaskuntza tradizionalari artea gehitzeko egin duten apustuari esker. Ikasleen balarazio positiboek jarduera hau jarraitzeko eta hobetzeko motibazioa ematen digute.

Medikuntza Fakultatearekin ere enpatia eta konpasio tailerrak garatzen dira, hainbat ikasgaitan, eta hauek Erizaintzakoekin lotura handia dute. Izan ere, tailer haue-
tan egindako piramide batzuk Medikuntza Fakultateko ikasleek eginikoekin elkartu dira. Tailer horiek ohikoak bihurtu dira, fakultate horiek irakaskuntza tradizionalari artea gehitzeko egin duten apustuari esker. Ikasleen balarazio positiboek jarduera hau jarraitzeko eta hobetzeko motibazioa ematen digute.

Laburbilduz, programa hezitzaileen helburua da unibertsitate-ikasleen behaketa, autoezagutza eta sormena garatzea, gaitasun horiek etorkizuneko profesional eta pertsona gisa hazteko lagungarri izan daitezen, ikaskuntza esanguratsuen bidez. Arteak baliabide aberasgarri eta aukerak sortzen dituen tresna bihurtzen da, edozein diziplina akademikoren zerbitzuak eta unibertsitate-komunitate osoarentzat.

Museoek ikerketa funtzioa ezinbestekoa dute, bere jardueren bitartez sortzen den ezagutza zientifikoa aurrera eramateko. Hau bereziki garrantzitsua da unibertsitate-museoetan. MUNeko Hezkuntza Arloan konprometzua hartu dugu, kongresu eta jardunaldietan parte hartuz, eta esperientzia hezitzaileak monografietan eta aldizkari zientifikoetan argitaratuz. Esperientzia horiek aurkeztu dira berrikuntza moduan edo kontzeptu berrikuntzako ikerketetan, baita irakaskuntza-berrikuntza proiektuekin ere. Argitalpen guzti hauek MUNeko webgunean daude eskuragarri.




MEDIKUNTZA FAKULTATEKO IKASLEAK, CABEZA CON MARIPOSAS (MANOLO VALDÉS, 2010), OBRA IKUSTEN. (M. CASTELLS)

MUSEO
UNIVERSIDAD
DE NAVARRA

MARGOLAN BAT
NIRE LAGUNA
IZAN DAITEKE?

OTS 11 2026
ABU 16 2026

PLANTA
+1



MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

RECTORA UNIVERSIDAD DE NAVARRA
María Iraburu

PRESIDENTE DEL PATRONATO
Ángel Gómez Montoro

DIRECTOR
Jaime García del Baccio

SUBDIRECTOR Y GERENTE
José Manuel Trillo

DIRECCIÓN ARTÍSTICA
Gabriel Pérez-Barreiro
Teresa Lasheras

DIRECCIÓN DE COMUNICACIÓN Y MARKETING
Elisa Montserrat

RESPONSABLE DE COLECCIÓN Y EXPOSICIONES
Ignacio Miguéliz

COORDINADORA DE COLECCIÓN Y EXPOSICIONES
Lucía Montes

ASESOR DE COLECCIÓN
Valentín Vallhonrat

EXPOSICIÓN

COMISARIOS
Fernando Echarrri
Teresa Barrio

COORDINACIÓN
Ignacio Miguéliz
Lucía Montes

MONTAJE
Mikel Juango
Moreno Vallés
Estudios Pigmento
Pinturas Galán
GRÁFICA
Ken

EDITA: MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA / DL NA 244-2026 / 978-84-8081-865-0 / +34948425700 / MUSEO.UNAV.EDU / MUSEO@UNAV.ES